



Euskararen genesiaz

Juan Miguel MUNARRIZ

ISBN: 978-84-9172-092-8

Saio eta Testigantza, 217

2019. urtea / 17 x 24 cm / 128 or.

24,00€

Lan honen helburua euskararen jatorria ikertzen saiatzea zen. Lehenbiziko erronka, baina, nondik heldu gaiari zen, nondik hasi. Hondarrean, gaurko euskara izan zen abiapuntua, zehazkiago, gaurko esaldiak. Horretarako, gramatika liburuak arakatu, bereziki *EGLU* gramatika-liburuetan aztertzen diren esaldi motak, hizkuntza osoa aztarnategizat hartzea izan zen lana garatzea ahalbideratu zuena.

Edozein aztarnategitan bezala, hizkuntzarenean ere aztarnak geruzetan sedimentaturik agertzen dira; berezitasun batekin: esaldiak eta gramatika-osagarriak nahasirik daude sedimentu horietan. Esaldi bildumak geruzaz geruza induskatzerakoan, beraz, bazterketak egiteaz gain, kotak markatzea baitezpadakoa izan zen. Ondorioz, hizkuntza-egoera desberdinak, garaiak eta beste hainbat berri jaso eta azertu ahal izan ziren, hainbat non, jatorriaren bilaketak hizkuntzaren genesian barnatzera bideratu baitzuen ikerketa.

Ondorioa liburu hau da. Bertan, J. M. Munarrizek ikerketa sakon eta harrigarriaren mailaz mailako prozesua eskaintzen du, euskararen barne-historia abiapuntuan, arkeologian erabili ohi denaren antzeko metodologiarekin garatua. Emaitza hizkuntzaren garabideari buruzko hipotesia da, euskararen genesiarena, alegia. Ekarpenezinago berezia, beraz. Modu ulerterraz eta interesgarrian azaldua, ez bakarrik hizkuntz-adituentzat, euskararen garapenez jakin-mina daukaten guztientzat baizik.

.....

JUAN MIGUEL MUNARRIZ ERASO

(*Elizondo, 1948*)

Medikuntzan lizentziatua (Valladolideko Unibertsitatea).

Estomatologian lizentziatua (Madrileko Universidad Complutense).

Hizkuntzari buruzko zaletasunak eta kezak akuilaturik, hainbat ikasketa, ikastaro eta jardunetan janzten ibili ondoren, autodidakta eran ekin izan dio hizkuntzaren egitura ikertzeari.

Lehen emaitza *Atapuerca, hortzetik hitzera* (2016) da, liburu honetan garatzen denaren aurrekaritzat har daitekeen saiakera (www.idazten.com).



www.pamiela.com

948 326 535 • soltxate@pamiela.com